

ELIKADURA ZUZENBIDEAREN OINARRI OROKORRAK

Oinarri orokorrak

Antolamenduaren oinarrizko balio eta irizpideak dira inplizituki edo berariaz Antolamendu Juridikoa osatzen duten arauetan jasotakoak. Oinarri orokorrek arau-balioa dute beti, eta balio hirukoitza izaten dute:

- ✓ Zuzenbidea **oinarritzeari** edo informatzeari **dagokion funtzioa**, oinarrizko irizpideak direlako, antolamendu juridikoan daudelako edo antolamendu juridikoa zein horren sektore jakin batzuk egituratzen dituztelako.
- ✓ **Interpretatzeari dagokion funtzioa**. Zalantzako ulermena edo esanahia duten balizko kontzeptuak aintzat hartuta, oinarri orokorrek erraztu egiten dute arauen interpretazio sistematikoa, dagokion sektorearen erregulazioa informatzen duten balioekin bat.
- ✓ **Arautzeari dagokion funtzio gehigarria**, kasu jakin batean ezartzeko berariazko araurik ez dagoenean. Materia jakin bat arautzeko zuzenbidearen oinarri orokorrak baliagarriak izan daitezke alorreko antolamenduak aurreikusi ez duen kasu zehatzen bati erantzun egokia emateko.

Kontua da legegilea, gero eta gehiago, oinarri orokor horiek positibizatzen ari dela; hau da, Zuzenbide Positibora gehitzen dituela, onesten dituen xedapen juridikoetara bertara. Horren ondorioz, araei inplizituki dagozkien balioak ordezkatu ez ezik, horiek ageri diren xedapenen besteko arau-balioa lortzen dute.

Printzipioa: Elikagaien zirkulazio librea EBn

Elikadurari buruzko legediaren helburua da pertsonen osasun publikoa eta kontsumitzaileen interesak maila altuan babestea, Europar Batasunaren lurralde-esparruan elikagaien zirkulazio askea lortze aldera.

Printzipioa: arriskuaren azterketa

Segurtasunari eta kalitateari dagozkien helburuak lortzeko elikagaiei buruzko legediak hartu beharreko neurrien oinarrian aldeztatik eta nahitaez egindako arrisku-azterketak egon behar du. Azterketa horrek metodologia sistematikoa eskaintzen du neurri eraginkor, proportzional eta zehatzak ezartzeko, elikaduraren segurtasuna gordetze aldera. Arriskuaren azterketa hiru alditan banatzen da: **arriskua zehaztea** (zientzia-aholkularitza eta datuen azterketa), **arriskua kudeatzea** (arautzea eta kontrola) eta **arriskuaren jakinarazpen-prozesua**.

Arriskua zehazteko zientzia-azterketa, une bakoitzean eskura dauden frogak zientifikoaren balorazio-prozesua da. Froga horiek modu independentean, objektiboan eta gardenean egiten dira. Arriskuaren azterketari dagokion printzipioan funtsatutako prozesu horrek guztiak zientzia-oinarri tinkoa ematen du, baita prozedura eraginkorrak ere segurtasunaren arloan, oro har, eta elikagaien segurtasunean, zehazki, erabakiak hartzeko.

Printzipioa: zuhurtasuna

Arrisku bat zehaztu ondoren, ikusten bada osasunerako kaltegarria izan ahal dela, baina zientzia aldetik zalantza badago, kontrolpean, **arriskua kudeatzeko behin-behineko neurri proportzionalak** (zuhurtasun printzipioa) hartu ahal izango dira, osasunaren babes-maila altua ziurtatzeko. Hori guztia arriskua era zehatzagoan zehaztea ahalbidetzen duen zientzia-informazio gehigarria jaso artean. Azken batean, arriskuaren kudeaketarekin lotutako erabakiak zuhurtasun printzipioaren menpe daude.

Printzipioa: gardentasuna

Oinarri honek justifikatu egiten du kontsulta publikoa egitea elikagaiei buruzko legeak egin, balioetsi eta berrikusi aurretik. Era berean, jendeari informazioa ematea eskatzen du arrazoiak baldin badaude pentsatzeko elikagai bat edo pentsu bat arriskutsua izan daitekeela gizakien osasunerako. Arriskuaren izaera, elikagaia eta arrisku hori aurreikusi, murriztu edo deuseztatzeko hartuko diren neurriak zehaztu behar dira.

Printzipioa: trazabilitatea

Trazabilitateak honako hau adierazten du: elikagaien ziklo osoaren arrastoa aurkitu eta jarraitzeko aukera, elikagaien ekoizpen-, eraldaketa- eta banaketa-fase guztietan, harik eta azken kontsumitzailera iristen den arte.

Elikagaien zikloko edozein etapatan elikagaiei buruzko legedia betetzeaz arduratzen diren pertsona fisikoek ahalmena izan behar dute prozesu horretan parte hartzen duten pertsonak eta elikagaiei gehitutako substantziak identifikatzeko.

Elikagaiak merkaturatzeko fasearen trazabilitatea etiketatze-arauak betetzean datza.

Printzipioa: proportzionaltasuna

Oinarri orokor honek, tradizioz, arautu egin du botere publikoek partikularren jardueretan dituzten esku-hartzeen erregimena. Beti defendatu izan du erabilitako neurriak egokitu egin behar direla lortu nahi diren helburuetara, eta beharrezkoa dela, eskura dauden neurri egokien artean, gutxien murrizten duena hautatzea.

Oinarri honek, esku-hartze publikoak osasun publikoan duen lekuari dagokionez, baieztatu egiten du gai honetan hartzen diren neurri prebentibo guztiek honako printzipio hauekin egin behar dutela bat:

- ✓ Osasun-mugek proportzionalak izan behar dute kasu bakoitzean lortu nahi diren helburuekin.
- ✓ Pertsona eta ondasunen zirkulazio askearen printzipioa, enpresa-askatasuna eta eragina jasan duen beste edozein eskubide gutxien kaltetzen dituzten neurriak erabili beharko dira.